

Hirigune historikoak: 18 hiritako 144 kale hartu ditugu, alde zaharretakoak guztiak, eta bizitzeko zer baldintza eskaintzen duten aztertu dugu

## Zerbitzu eta azpiegitura eskasak hirigune historikoetan

ZARAGOZA, VALLADOLID, IRUÑEA, MADRIL ETA BARTZELONA SOILIK DAUDE 'ONGI'. A CORUÑAK, ALACANTEK, KORDOBAK, MURTZIAK, OVIEDOK ETA VALENTZIAK DITUZTE GABEZIARIK HANDIENAK

Hirigune historikoa da hiri baten bihotza eta ikur nagusia. Han bizi direnak, hala ere, ez daude besteak baino hobeto. Askotan, gainera, gunee horiei bizkar emanda bizi da hiria bera. Espainiako 18 hiriburutan egin du azterketa CONSUMER EROSKI-k, eta gabeziak badaudela egiaztatu ahal izan dugu: zerbitzu aukera urria, azpiegitura eskasak eta irispide arazoak, besteak beste.

Oviedo, Iruñea, Donostia, Sevilla, Valentzia, Logroño, Zaragoza, Gasteiz, Valladolid, A Coruña, Alacant, Bartzelona, Bilbo, Kordoba, Granada, Madril, Malaga eta Murtzia bisitatu dituzte aldizkari honetako teknikariek, eta hiri horietako zortzi kalerik adierazgarrienak aztertu dituzte. Kale bakoitzak han bizi denari zer baldintza eskaintzen dizkion ikertu dute; hau da, ea nahitaezkoak zaizkion elementuak badituen kale horrek, eta oinarri-oinarrizko beharrei erantzuteko aukera ematen dion. Ebaluazioa egiteko, kaleak banan-banan ikusi dituzte teknikariek, eta, horren osagarri, udalei galdetegi bat eman diete (Alacantekoak, Valentziakoak, Madrilgoak, Murtziakoak, Sevillakoak eta Valladolidekoak ez dute erantzun, nahiz eta CONSUMER EROSKI-k behin eta berriro galdegin). Horrez gain, inkesta bat egin diete gunee horietan bizi diren 1.000 laguni, haiek zer iritzi duten jakiteko.

Ikerketaren ondorioek erakusten dute hirigune historikoen baldintzak ez direla egoki-egokiak han bizi izateko. Oro har, erdipurdiko emaitza lortu dute, eta "onargari" izatera baino ez dira iristen. Zerbitzuetan antzeman dira gabeziarik handienak (dendak, elikagai saltokiak, ikastetxeak, osasun etxeak, gizarte zerbit-

zuak, erakundeen ordezkariak, kirol guneeak, aisiarako tokiak edo eremu berdeak), eta, garbi esateko, "txar-tzat" jo behar dira. Beste hainbat alderdi ere hortxe-hortxe geratu dira, eta "onargarrizat" soilik har daitezke: garbitasuna eta mantentze lanak, mugikortasuna, irispideak eta hiri altzariak.

'Ongi' dauden hiriak bost baino ez dira (Bartzelona, Madril, Iruñea, Valladolid eta Zaragoza), eta gainerako guztiak, hortik behera. Bilbo, Granada, Logroño, Malaga, Donostia, Sevilla eta Gasteiz 'onargari' daude, eta besteak, A Coruña, Alacant, Kordoba, Murtzia, Oviedo eta Valentzia, 'hala-hola'.

Hirigune historikoetako biztanleen inkestak ere bat datoz iritzi horrekin. 1.000 egin ditugu, 100 Madrilen eta Bartzelonan, eta 50 gainerakoetan, eta hamarretik sei ez daude batere gustura garbitasunarekin, eta beste hainbestek salatu dute eremu berdeen falta sumatzen dutela eta daudenak nahiko utzita daudela; % 46ren iritziak, eraikinak oso egoera txarrean daude, eta hirutik batek esan du zerbitzuak falta direla.

### Ostalaritzako lokalak ugari, haurren guneeak eskas

Hirietako alde zahar asko eta asko aisialdirako toki bihurtzen ari dira, eta asteburuetak parrandarako bilgune. Tabernak daude erruz, edaritegiak, diskotekak eta jatetxeak (Bilbon, Malagan, Valentzian, Valladoliden eta Zaragozan nabarmen geratzen da hori), eta nekezago aurkituko ditugu botikak, okindegiak, hirugarren adinekoentzako zentroak edo haurrek jolasteko tokiak. Ikerketak horrexegatik jotzen du 'txartzat' egoera. ►



Zaragozak eta Iruñeak soilik lortu dute arlo honetan emaitza hobea. Beste muturrean dago Alacanteko eta Kordobako kaleen egoera: 'oso txarra'.

138 kaletako biztanleek (144 aztertu ditugun) ez dute osasun etxe bat inguru samarrean. % 66k ez dute botikariak inguruan (Alacanten eta Logroñon nabaritzen da gehien gabezia hori, eta Zaragozan, berriz, zazpi botika daude).

Hiriburuetakoko gune historikoetan bizi diren askok 65 urte baino gehiago dituzte. Valentzian, A Coruñan, Madrilan, Iruñean, Donostian, Gasteizen eta Zaragozan, auzoan bertan dituzte hirugarren adineko-entzako zentroak, baina, gainerakoetan, beste auzoren batera joan beharra dute zerbitzu hori eskuratzeko. Haurrek ere antzeko arazoa dute: Zaragozan, Logroñon, Iruñean eta Bartzelonan soilik dago haurrentzako jolastokiren bat aztertu ditugun kaleetan. Eskolara joateko ere, beste auzo batzuetara joan behar dute haur askok (Bilbon, Logroñon eta Murtzian sumatu da hori gehien).

Kulturarako eraikinen arloan, Gasteiz nabarmendu behar da: aztertu ditugun kaleen erdiek, gutxienez, badute halako eraikinen bat. Bilbok, Kordobak eta Donostiak ez dute bat bera ere. Alacantek eta

Valentziak ez dute banketxerik guk aztertu ditugun kaleetan, turistentzako ostatu gehien, berriz, Bartzelonako eta Donostiako alde zaharretan daude. Turistentzako informazio ematen duten seinaleak ez dira ageri (Zaragozan bakarrik aurkitu dute CONSUMER EROSKI-ko teknikariek halakoren bat); egunkari eta aldizkariak saltzen dituzten tokiak ere gutxi dira (144 kaleetatik, 23tan bakarrik), eta tabako dendak ere bai (lau kaleetatik batean).

Gasteizen aztertu ditugun kaleek, kulturarako eraikinak ez ezik, eremu berdeak ere gehiago dituzte besteek baino (zortzi kaleetatik hirutan ikusi dituzte gure teknikariek jendea ibiltzeko eremuak), eta komun publikoak ere Gasteizen bakarrik daude, eta doakoak dira (Malagak ere baditu, baina 0,20 zentimo ordaindu behar da). Komunak, hala ere, oso zikinak daude.

144 kaleen erdiek soilik dituzte elikadura saltokiak. Okindegiak eta harategiak Gasteizko lau kaleetan bakarrik daude, Iruñeko eta Zaragozako bitan, eta Bartzelonan, Bilbon, Logroñon, Murtzian eta Sevillan, kale bakarrean.

Arrandegiak Zaragozako bi kaleetan topatu ditugu, eta Iruñeko eta Gasteizko batean. Fruta dendak ere bi kaleetan daude Zaragozan, eta kale batean A Coruñan, ►

## •••• Hirigune historikoak banan-banan



**A CORUÑA:**  
►HALA-HOLAKOA

**Onena:** Hirigune historikoetako kaleek mugikortasun ona eskaintzen dute, eta irispideak ere onak dituzte.

**Txarrena:** Biztanleei zerbitzurik oinarritzko-enak falta zaizkie, eta eraikinak oso utzita daude.



**ALACANT:**  
►HALA-HOLAKOA

**Onena:** Kaleak eta eraikinak ongi zainduta daukate. Lorategiak ere badauzkate alde zaharretan –hiri gutxik daukate-, eta horiek ere ongi zainduta daude.

**Txarrena:** Alde zaharretan zerbitzu gutxien dituen hiria da (elikadura saltoki bat bera ere ez dago aztertu ditugun zortzi kaleetan). Bi zaborrontzi bakarrik ikusi ditugu, eta autoei irekita dauden kaleetan, ez dago ia aparkalekurik.



**BARTZELONA:**  
►ONA

**Onena:** Garraio publikoa erabiltzeko geltokirik hurbilenak non dauden adierazteko seinaleak dituzte; mugikortasuna, irispideak eta hiri altzariak ongi erabili izanaren adibide da hori.

**Txarrena:** Zortzi kaleetan, haurren jolastoki bakarra aurkitu dugu, eta elikadura saltokirik ia ez.



**BILBO:**  
►ONARGARRIA

**Onena:** Eraikinak ongi zainduta daukate; asko berrituta daude, eta utzikeria arrastorik gabe daude gehienak. Merkataritza gunerik bizienetakoak dira hirigune historikoetako kaleak, eta hiri garraioak hartzeko geltokiak oso hurbil daude.

**Txarrena:** Gauetako zalaparta (ez da soilik asteburuetakoa kontua). Aztertu ditugun zortzi kaleetan, ez dago ez ikastetxerik, ez zuhaitz bat bera ere.



**DONOSTIA:**  
►ONARGARRIA

**Onena:** Etxebizitza-erakinak ongi zainduta daude, eta zorua ere bai (ez dago zuloarik, putzurik eta abar).

**Txarrena:** Gehiago dago turismoari begira, han bizi direnei baino.



**GASTEIZ:**  
►ONARGARRIA

**Onena:** Alde zaharretan ibiltzeko autobus linea daukate.

**Txarrena:** Taberna eta diskoteka asko daude –gehiegi-, eta horrek badu eragina zenbait gauzatan: ez da erraza kaleak garbi edukitzea, eta giroa ez da egokiena han bizi behar duenarentzat.

## • • • Taula orokorra: hirigune historikoak, zehatz-mehatz aztertuta

HIRIA	Garbitasuna eta Mantentze Lanak <sup>(1)</sup>	Zerbitzuak <sup>(2)</sup>	Mugikortasuna eta Irispideak <sup>(3)</sup>	Hiri Altzariak <sup>(4)</sup>	Bataz Bestekoa
A Coruña	Hala-holakoa	Txarra	Onargarria	Hala-holakoa	Hala-holakoa
Alacant	Ona	Oso Txarra	Onargarria	Onargarria	Hala-holakoa
Bartzelona	Onargarria	Hala-holakoa	Ona	Ona	Ona
Bilbo	Onargarria	Hala-holakoa	Onargarria	Onargarria	Onargarria
Donostia	Hala-holakoa	Hala-holakoa	Onargarria	Onargarria	Onargarria
Gasteiz	Hala-holakoa	Hala-holakoa	Onargarria	Onargarria	Onargarria
Granada	Onargarria	Txarra	Ona	Onargarria	Onargarria
Iruñea	Ona	Onargarria	Onargarria	Ona	Ona
Kordoba	Onargarria	Oso Txarra	Onargarria	Onargarria	Hala-holakoa
Logroño	Hala-holakoa	Hala-holakoa	Onargarria	Onargarria	Onargarria
Madril	Ona	Hala-holakoa	Oso Ona	Ona	Ona
Malaga	Hala-holakoa	Hala-holakoa	Onargarria	Ona	Onargarria
Murtzia	Hala-holakoa	Txarra	Onargarria	Hala-holakoa	Hala-holakoa
Oviedo	Onargarria	Txarra	Onargarria	Hala-holakoa	Hala-holakoa
Sevilla	Ona	Hala-holakoa	Onargarria	Onargarria	Onargarria
Valentzia	Txarra	Hala-holakoa	Hala-holakoa	Hala-holakoa	Hala-holakoa
Valladolid	Ona	Hala-holakoa	Ona	Ona	Ona
Zaragoza	Ona	Onargarria	Oso Ona	Oso Ona	Ona
<b>Bataz Bestekoa</b>	<b>Onargarria</b>	<b>Txarra</b>	<b>Onargarria</b>	<b>Onargarria</b>	<b>Onargarria</b>

(1) **Garbitasuna eta Mantentze lanak:** hiri altzariak nola garbituta eta zainduta dauden aztertu dugu eta eraikinei ere erreparatu diegu. Horrez gain, aintzat hartu dugu zorua nola dagoen (legar xeherik baduen, zaborrak botata dauden edo labainkorra den), oinezkoentzako pasabiderik baduen, haurren jolastokiak badiren eta nola dauden, eta berdin komun publikoak. (2) **Zerbitzuak:** azterketa honen helburua izan da jakitea ea hirigune historiko hauek badituzten gutxienezko zerbitzuak, edozein hiritarrek behar izaten dituen horiek: elikadura saltokiak, osasun etxeak, hirugarren adinekoentzako zentroak, botikak eta abar. Edo, horretara baino gehiago, gau parteko aisialdira bideratuta dauden, tabernaz eta jatetxez beteta, turistak ere erakartzeko. (3) **Mugikortasuna eta Irispideak:** atal honetan aztertu dugu ea baden oztoporik oinezkoentzat edo gidarientzat. Horrez gain, ezinduentzat eta adinekoentzat nolako irispideak dituzten ere kontuan hartu dugu. (4) **Hiri altzariak:** hiriko eremu berri edo modernoagoetan adina elementu ote dauden egiaztatu nahi izan dugu (zaborrontziak, edukiontziak, eseri tokiak, farolak, estoldak, iturriak...).



**GRANADA:**  
➤ONARGARRIA

**Onena:** Mugikortasuna eta irispideak nabarmendu behar dira. Oinezkoentzako kaleetan bizi direnek ez dute jasaten zirkulazioaren eraginik (zortzi kaleetatik zazpi dira oinezkoentzat). **Txarrena:** Kaleetako pibote eta bolardo gehienak askatuta daude, eta kalean botata.



**IRUÑEA:**  
➤ONA

**Onena:** Zerbitzu asko eta askotarikoa ditu (gehien dituenetakoa da). Gainera, eraikinak oso ongi zainduta daude. **Txarrena:** Mugikortasunean eta irispideetan badu zer hobetua, nahiz eta gainditzen duen gutxienezkoa.



**KORDOBA:**  
➤HALA-HOLAKOIA

**Onena:** Hirigune historikoan txirritu-aparkalekuak dauzkan bakarretakoa da. Gainera, txirritu guztiak aparkaleku horietan utzita aurkitu ditugu. **Txarrena:** Zerbitzu gutxi ditu (elikadura saltokiak edo kultur guneak, adibidez). Kaleetan eta eraikinetan lanak egiten aritu dira azterketa egin dugunean, eta ez dugu ikusi oinezkoen segurtasun zaintzeko hesirik.



**LOGROÑO:**  
➤ONARGARRIA

**Onena:** Hiri altzari ugari daude, batez ere, edateko iturriak eta iturri apaingarriak. **Txarrena:** Kaleak garbiago egon litezke.



**MADRIL:**  
➤ONA

**Onena:** Alde zaharretan osasun etxea eta hirugarren adinekoak biltzeko zentroa dituen bakarretakoa da. **Txarrena:** Zirkulazioa handi-handia izaten da aztertu ditugun zortzi kaleetan.



**MALAGA:**  
➤ONARGARRIA

**Onena:** Hirigune historikoan komun publikoak dituen bakarra, Gasteizekin batera. Malagako komunak garbi eta txukun daude. Hiri altzari ugari ditu. **Txarrena:** Garbitasuna falta da, eta utzikeria handi samarra dago (zorua zikin, orubeak bertan behera utzita...); gainera, hezetasun arrastoak ageri dira eraikinetan, euri uren hodiak apurtuta daude, eta argiaren hariak hormetatik zintzilik. Taberna asko daude, eta diskotekak ere bai.

Bilbon, Kordoban, Malaga, Donostian eta Valentzian. Jateko, Zaragozan, Madrilen eta Donostian aurkituko dugu aukera gehien.

## Hiri altzari gutxi, eta nahiko utziak

Hiri altzariak garrantzi handia izaten dute, oso lagungarriak baitira hiriak garbi edukitzeko eta, ondorioz, itxura onean. Zenbat eta zakarrontzi, edukiontzi eta estolda-zulo gehiago, orduan eta zikinkeria gutxiago zorian; eta zorua garbi badago, ez dirudi hain utzita dagoenik. Guk, ordea, ez ditugu asko aurkitu hirigune historikoetan, eta arbolak eta eseri tokiak ere ez. Zaragoza soilik dago 'oso ongi' alde horretatik. A Coruña, Murtzia, Oviedo eta Valentzia 'hala-hola' daude, gabezia handiekin.

Alacanten, adibidez, bi zakarrontzi soilik daude aztertu ditugun zortzi kaleetan, eta Zaragozan, berriz, 40. Estolda-zuloak ere beste inon baino gehiago dira Zaragozan; 38 ditu, eta guztiak oso egoera onean eta oso ongi itxita. Valentzian ere asko daude, 40, baina erdiek baino gehiagok badute akatsen bat, eta ezin dira erabili.

Zuhaitzen eta eseri tokien arloan, gehienak dabilta eskas. Berriz ere, Zaragoza da salbuespena. Asko ditu, eta ongi zainduak. Valentzia da, berriz ere, kontrako aldea. Apenas baduen zuhaitzik eta eseri tokirik, eta, dituenak, nahiko zikin.

Azkenik, hiri altzarietan aipatu behar dira edateko iturriak, iturri apaingarriak eta piboteak, zirkulazioa eta oinezkoen eremua bereizteko jarriak. Zaragoza, Madril, Alacant, Bartzelona, Granada, Valentzia eta Logroño gailentzen zaizkie gainerakoei. CONSUMER EROSKI-ko teknikariek edateko iturri gutxi ikusi dituzte hirigune historikoetan (hiru Alacanten, 2 Kordoban,

Logroñon eta Valentzian, eta bat Gasteizen, Granadan eta Bartzelonan). Valentziakoak, gainera, nahiko gaizki daude, eta erdiak ez dabilta. Iturri apaingarrien sailean, Malagakoek eta Murtziakoek ere garbitu on baten premia daukate.

Aztertu ditugun kaleen ia % 60tan ez dago kokapen-panelik. A Coruñan, Bilbon eta Donostian, adibidez, bakar bat ere ez dugu aurkitu. Gainerako % 40etan, mesede adina kalte egin dezakete batzuek: Gasteizen, traba egiten diote oinezkoari, eta, Malagakoek bezala, badute elementu arriskutsuren bat (zati irtenak, lurrari itsatsi gabe edo izkina zorrotzekin).



**MURTZIA:**  
➤HALA-HOLAKOA

**Onena:** Mugikortasun eta irispide onak ditu.  
**Txarrena:** Zerbitzu hornidura eskasa dute, monumentuak zikin daude, eta zorua hondatuta dago (oinezkoentzat arriskutsu).



**OVIEDO:**  
➤HALA-HOLAKOA

**Onena:** Kaleak ongi garbituta daude.  
**Txarrena:** Autoak galarazitako lekuetan utzita aurkitu ditugu, eta banaketa lanetan ibili diren ibilgailuen % 20 oinezkoentzako eremuan ibili dira, zamalanetarako ordu-tegitik kanpo.



**SEVILLA:**  
➤ONARGARRIA

**Onena:** Kaleak garbi daude, eta ongi zainduta, eta eraikinak ere bai.  
**Txarrena:** Merkataritza saltoki gutxi daude. Ez dugu ikusi hirugarren adinekoentzako zentrorik, ez haurren jolastokirik.



**VALENTZIA:**  
➤HALA-HOLAKOA

**Onena:** Saltoki ugari daude, eta eguneko erosketak auzoan bertan egin daitezke, beste inora joan beharrik gabe.  
**Txarrena:** Zikina dago, eta gaizki zainduta. Zorua egoera txartat jo behar da (zikina dago, eta elementu arriskutsuak dauzka), eta berdin eraikina ere (graffiti eta kartel asko ageri dira).



**VALLADOLID:**  
➤ONA

**Onena:** Alde zaharra garbi eta ongi zainduta daukate. Hiri altzari ugari dituzte (zaborrontziak, farolak eta estolderia).  
**Txarrena:** Taberna, jatetxe eta diskoteka gehiegi daude.



**ZARAGOZA:**  
➤ONA

**Onena:** Ugari ditu zaborrontziak, eseri tokiak, zuhaitzak eta iturriak (edatekoak zein apaingarriak), eta horrek asko laguntzen du kaleak garbi edukitzeko eta bizi-giroa goxatzeko.  
**Txarrena:** Palde zahar zoragarria du Zaragozak, baina badu zer hobetua 'zerbitzuen' arloan. Taberna eta diskoteka asko daude.

## Eraikinak eta zorua: garbitasuna eta mantentze lanak

Hirigune historikoetako eraikinak eta zorua garbitzea eta zaintzea funtsezko lana da toki horiek eder egon daitezen, eta baldintza onetan han bizi behar dutenentzat. Gure teknikariek, ordea, utzikeria handia ikusi dute hiri askotan, Valentziako alde zaharrea, batik bat ('txartzat' jo dute egoera). A Coruña, Logroño, Murziako, Malagako eta Gasteizko kale batzuetan ere negargarri daude zenbait etxebizitza-erakin (hiri horien egoera 'hala-holakotzat' jo dute teknikariek), eta Iruñean eta Zaragozan, berriz, eraikin gehienek oso itxura ona dute. Bi horietako egoera 'ona' dela esan dute gure teknikariek, eta berdin beste hiri hauetakoa ere: Madril, Valladolid, Alacant eta Sevilla.

A Coruña, utzikeria arrastoak dituzten eraikinen hormak belztuta daude. Malagakoek nahiko hondatuta dituzte argiaren hariak, eta zintzilik ere bai zenbaitek; euri urarentzako hodiak apurtuta dituzte, eta hormak, berriz, hezetasunak hartuta. Murtzian ikusi dituzten kaleetan, hondatu samarrak aurkitu dituzte atari batzuetako ateak, eta zenbait elementu lurrera erortzeko zorian: balkoietan batzuk eta teilatueta ere bai teila puskatuak.



## HIRIGUNE HISTORIKO HAU ZORAGARRIA LITZATEKE

Hirigune historikoek ez lukete egon behar soilik turistei begira antolatua. Ere mu horiek lehengoratzeko orduan, han bizi direnei eman behar litzaieke lehentasuna. Horregatik, zoragarria litzateke hirigune historiko bat honela antolatu eta hornitzea:

**Administrazioaren bulegoak:** Ona da herritarrak ikus dezala Administrazioa hurbil daukala, eta alde zaharra ere garrantzitsua dela.

**Osasun etxeak eta botikak:** Funtsezko zerbitzua da, hirigune historikoan bizi direnek bizi-kalitate gutxieneko bat eduki dezaten, eta beste inora joan gabe egin ditzaten medikuarekikoak.

**Hirugarren adinekoentzako zentroak:** Gero eta adineko jende gehiago daukagu, eta, batik bat, hirigune historikoetan.

**Ikastetxeak, aisiarako guneak, kultura azpiegiturak eta udal bibliotekak:** Hirigune historikoei giroa emateko eta bizilagunen arteko loturak sendotu eta azkartzeko, funtsezkoa da kulturaren eta hezkuntzaren alderdia.

**Ere mu berdeak eta haurren jolastokiak:** Jendea biltzeko balio duten toki publikoek onura handia egiten diote hiriaren barne-osasunari eta bizi-kalitateari.

**Oinezkoentzako kaleak:** Auzo-bizitza sustatzeko, garrantzitsua da kaleak autoei itxi eta oinezkoentzat jartzea.

**Mugikortasuna:** Hirigunean bizi direnei eskura jarri behar zaizkie autobus, tranbia eta metro geltokiak, nahi duten tokira joan ahal izateko. Gainera, iraunkortasunaren mesedetan, komeni da txirindu-aparkalekuak jartzea.

**Etxebizitza eta zorua ongi zaindu:** Hiri askotan, alde zaharreko etxeak eta zorua oso aspaldikoak dira, eta berritu egin behar dira.

**Hiri altzariak:** Hiriko beste auzoek bezala, hirigune historikoek ere behar dituzte halakoak: farolak, argi emateko; zaborrontziak, kaleak garbi izateko; pibote edo bolardoak, ibilgailuak eta oinezkoak bereizteko; eseri tokiak, pasean dabiltzanek atseden hartzeko...

**Garbitasuna:** Hirigune historikoek zaborrontziak eduki behar dituzte, zaborra gaika biltzeko edukiontzia eta, nola ez, garbiketa zerbitzuek maiz garbitu behar dituzte kaleak.

**Irispideak:** Hirigune historiko gehienek nahiko egitura gorabeheratsua izaten dute; aldapa handiak, eskailera traketsak... eta horiek oztopo bihurtzen dira adineko jendearentzat eta ezintasunen bat dutenentzat. Horregatik, udalek arreta berezia jarri behar dute, eta oztopoak kentzeko sistemak ezarri behar dituzte (plataforma edo eskailera mekanikoak, igogailuak...).



Gainera, aztertu dituzten kasuen % 30etan, bertan behera utzitako orubeak topatu dituzte (hori ere bada utzikeria seinalea), nahiz eta ongi hesituta egon diren guztiak, arriskurik ez sortzeko moduan. Malagan bisitatu duten orubea, ordea, hesitu gabe aurkitu dute, eta zikinkeriaz gainezka.

Zorua gaizki samar egon da Valentziako, Malagako eta Murtziako zenbait kaletan. Iruñean eta Sevillan, berriz, oso ongi topatu dute, oinezkoari traba egin diezaioketen elementurik gabe (zaborra, legar xehea, harea eta abar). Hala ere, aztertu ditugun kaleen % 22k labainkorra dute zorua, baina batean ere ez dute aurkitu horren berri ematen duen seinalerik, oinezkoak ohartarazi eta erorketak saihesteko.

### **Mugikortasuna: zaila, autobus eta taxi geltokiren bat aurkitzea**

Alde zaharraren eta gainerako guneen arteko loturak ez dira on-onak, eta guztiak ere badute zer hobetua. Hala ere, alde nabarmenak daude aztertu ditugun 18 hirien artean: Zaragoza 'oso ongi' dago, Iruñea, Valladolid, Madril, Malaga eta Bartzelona 'ongi' daude, eta gainerakoek ez dute gainditu gutxieneko maila. Valentzia, Oviedo, Murtzia eta A Coruña 'hala-hola' daude, eta gainerakoak, 'onargarri'.

Hirigune historikoetan, oinezkoak du lehentasuna. Aztertu ditugun 144 kaleetatik, oinezkoentzat bakarrik dira 96. Horrexegatik ez dute aurkitu autobus geltokirik kaleen % 86tan, eta taxienak, berriz, % 5etan soilik aurkitu dituzte. Txirrindu-biderik duen kalerik ez dute aurkitu gure teknikariek, eta % 6tan baino ez dituzte ikusi txirrinduen aparkalekuak (Bartzelonan, Kordoban, Iruñean, Sevillan, Valladoliden eta Zaragozan).

Hirietan, autoa uzteko tokia bilatzea oso nekeza gertatzen da, eta aparkaleku falta arazo handi bihurtu da. Oinezkoentzat jarrita ez dauden bi kaletatik batek bakarrik dauzka aparkalekuak. Arazoa bereziki larri da Alacanten, Kordoban, Valentzian eta Gasteizen, horiek, gainera, ez baitute lurpeko parkingik.

Aztertu ditugun hirietan, 55 kale daude autoei irekita, eta seinaleen aldetik, dezente hobeto egon zitezkeen: hirutik batean, ez dago seinalerik zirkulazioa zein noranzkotan doan adierazteko, nahiz eta beharrezkoa izan (Alacanten, Kordoban, Malagan eta Gasteizen dute egoera txarrena), eta kaleen % 86tan, ez du jartzen zenbateko abiadura joan daitekeen gehienez (berriz ere, Alacant, Kordoba, Granada, Malaga, Oviedo, Sevilla, Valentzia, Valladolid eta Gasteiz daude okerren). Azkenik, autoei irekita dauden kaleen %



77tan, ezintasunen bat duten pertsoneri ez diete gordezten autoa uzteko lekurik.

Irispideek ere merezi dute bere tarte. Txostenean ageri diren 144 kaleetako batean ere ez dago inolako sistema mekanikorik oinezkoen laguntzeko oztopoak gainditzen. Gasteizko kale batean soilik ikusi dute halakoren bat. Plataforma mekanikoak dira Gasteizkoak; kristalezko barandak dituzte, metalezko babes xaflak, eta seinaleak, baina ez daude ez ongi garbituta, ez ongi zainduta (kristal apurtuak, zikinkeria, graffitiak...). Madrilgo eta Valladolideko kaleek dituzte espaloi ertz garaienak, eta espaloirik estuenak, berriz, Kordobakoak dira (bi pertsona ez dira pasatzen elkarren parean).

Bisitatu ditugun 144 kaleetatik, 11k bakarrik dute lorategia (Alacanten, Granadan, Gasteizen, Madrilan, Iruñean eta Valentzian); A Coruñan, Bilbon eta Donostian pasatu ditugun kaleetako bakarrean ere ez dago zuhaitzik, eta lorontzirik ez da ageri hiri hauetan: Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea, Murtzia eta Granada. Valentzian aztertu ditugun kaleek badituzte arbolak, baina nahiko zikin daude, eta gaizki zainduta, eta berdin daude lorontzien erdiak ere. ◀

## Biztanleak ez daude gustura hirigune historikoen egoerarekin



### • • • Biztanleen iritzia

HIRIA	Garbitasun Azakoak	Zerbitzu Gutxi	Irispide Txarrak	1etik 10erako Nota
A Coruña	35%	35%	64%	6
Alacant	10%	38%	68%	6
Bartzelona	22%	27%	48%	4
Bilbo	4%	0%	4%	7
Donostia	2%	12%	12%	5
Gasteiz	46%	54%	56%	5
Granada	21%	65%	85%	6
Iruña	14%	4%	6%	8
Kordoba	31%	18%	35%	5
Logroño	10%	24%	10%	7
Madril	29%	49%	48%	6
Malaga	32%	34%	44%	6
Murtzia	8%	46%	34%	7
Oviedo	2%	4%	14%	7
Sevilla	56%	42%	78%	4
Valentzia	21%	33%	25%	5
Valladolid	4%	18%	28%	7
Zaragoza	40%	38%	64%	6
<b>Batez Bestekoa</b>	<b>22%</b>	<b>31%</b>	<b>41%</b>	<b>6</b>

Hirigune historikoen inguruko azterketa osatzeko, eremu horietako 1.000 laguni inkesta egin die CONSUMER EROSKI-k. Biztanle bakoitzari iritzia eskatu diogu gai hauen gainean: garbitasuna, zerbitzu hornidura eta irispideak, eta hirigune historikoak oro har eskaintzen dizkien -baldintzei nota bat jartzeko ere eskatu diegu. Hor ageri diren ehunekoek hauxe adierazten dute: guk galdetu diegunetik, zenbatek uste duten **garbitasun** arazoak daudela, **zerbitzu** gutxi dauzkatela eta **irispideak** txarrak direla. Noski, iritzi horiek ez dute zertan bat etorri aldizkari honek eman dituenekin.

CONSUMER EROSKI saiatu da hirigune historikoetan bizi direnen iritzia ere biltzen, eta 1.000 inkesta egin ditugu (100 Madril eta Bartzelonan, eta 50 gainerako hiriburuetan). Iritzi txarrak gehiago izan dira onak baino, batez ere, arlo hauetan: garbitasuna, eraikinen mantentze lanak, zerbitzu hornidura eta eremu berdeak. Eremu horiei, hain zuzen, Otik 10era, 6 ematen diete, batez beste. Iruñekoek eman diete gehien (8), Logroño, Murtzia, Oviedo, Valladolid eta Bilbo datoz hurrena (7 eman diete guztiei), eta gutxien, berriz, Bartzelonakoek eta Sevillakoek (4).

**Garbitasunaz:** Inkestatu ditugun 1000 lagunetatik % 61ek 'hala-holakotzat' edo 'txartzat' jo dute garbitasuna. Hiru arrazoi eman dituzte: % 36ren ustez, gune historikoa ez dute garbitzen behar bezain maiz; % 21en iritziz, graffiti eta kartel gehiegi daude, eta gauza asko hondatuta daude; eta % 18k diote dena oso zikin dagoela eta oso usain txarra dutela. A Coruñan, adibidez, garbitasuna txartzat jo duten lau lagunetatik hiruk azken arrazoi hori eman dute. Donostian, berriz, hirigune historikoa maiztasun gutxirekin garbitzen dutela esan dute guztiek.

**Zerbitzuez:** Inkesta erantzun duten hiru lagunetatik bat kexu agertzen da hirigune historikoetan zerbitzu hornidura eskasa dutelako. Gasteizen (% 54) eta Granadan.

**Mugikortasunaz eta irispideez:** % 41ek baieztatu dute beren kalean ez dagoela irispide egokirik ezintasunen bat duten pertsonentzat edo adinekoentzat.

**Segurtasunaz:** Zenbait hirigune historikotan, delinkuentzia ugari egin da, eta alde zaharreko kaleetan segurtasunik ez dagoela adierazten dute bertako biztanleak, eta handik kanpo bizi direnek ere bai. Bartzelonan, Gasteizen, Kordoban eta Sevillan salatu dute gehien egoera hori, eta kexu gutxien, Granadan eta Valladoliden izan dira.

**Osorik berritzeaz:** 1.000 lagun erdiek beharrezkotzat jo dute hirigune historikoak berritzea. Donostiakoak eta Valladolidekoak gustura daude oraingoarekin, eta horietan agertu da berrikuntza premia gutxien. Premia gehien, berriz, Gasteizkoek eta Alacantekoek sumatzen dute. Zer berrituko luketen galdetuta, orotariko erantzunak jaso ditugu, baina kaleak eta eraikinak berritzea nahi lukete askok.

**Hiriko beste eremu batzuekin alderatuz:** Inkestek erakusten dute hirigune historikoetan bizi direnek hobeto hornituta ikusten dituztela beste eremu batzuk, eta horrek ez dituela asko poztzen:

1. **Zerbitzuak:** erdiek ez dute alderik ikusten beren auzoaren eta beste eremuetakoen artean, baina % 30ek uste dute azpiegitura gutxiago dituztela alde zaharrea.

2. **Etxebizitza-erakinak:** % 46k diote etxeak negargarri daudela, batik bat Malagan, Alacanten, A Coruñan eta Zaragozan.

3. **Kaleak:** gehienek uste dute berdintsu daudela alde zaharrekoak eta besteak.

4. **Garbitasuna:** bitik baten iritziz, kaleetako garbitasunak eta horiek mantentzeko lanek ez dute alde handirik batean eta bestean. % 30en ustez, hala ere, hirigune historikoetako kaleak utziagoak daude. Oviedokoek egin dute kexu gutxien arlo honetan.

5. **Irispideak:** 1.000tik ia erdiek, % 48k, uste dute irispide txarrak dituztela beren kaleak, batez ere, Alacanten eta Granadan.

6. **Eremu berdeak:** hamarretik seik diote alde zaharrea eremu berde gutxiago dituztela.